

1987ko urriak 29. Osteguna

aberria 9

Asturias-ekoa hobegotzat jotzen dute askok

11,5 milioi kilo sagar beharko Gipuzkoan kontsumitzen diren 8 milioi litro sagardo egiteko

Sagar ondoak landatzeko subentzioak orain lau urte hasi ziren martxan. Gaur egun, laguntza hauek sagar ondoaren eremua erabat zuzpertzten ari delarik, etorkizuna gero eta argiagoa agertzen zaio sektore honi. Hala eman zuen aditzera Gipuzkoako Aldundiko Nekazal diputatu den Jaime Zubia jaunak.

Ibon Alonso

Nahiz eta administralgo publikoaren bultzada nabarmena izan, Jaime Zubiak nekazari eta sagar dotegien arteko tentsioak aipatu zituen; gakoa, sagar dotegiek Asturias-eko sagarra hobegotzat jotzen dutelakoan datza. Hori dela eta, Gipuzkoako baserritarrak beraien ekoizpena prezio merketan saltzera beharturik aurkitzen dira.

Nekazal diputatuak esan zenez, 11,5 milioi kilo sagar beharko dira Gipuzkoan kontsumitzen diren 8 milioi litro sagardo ekoizteko. Gutxi gora behera, sagar kilo batek 750 zentimetro kubiko sagardo egiten du. Orduan, batuz besteko, sagar ondo bakoitzetik 100 kg. sagar ateratzen badira, Zubiaren kalkuluen arabera, 230.000 sagar odo beharko lirateke Gipuzkoan.

Esan behar da, sagar ondoak urte batean fruitu asko ematen duela baina hurrengoan, aldiz, oso urri. Egund, Gipuzkoan sagar ondo asko behar dira, oraindik berez sa-



Bataz besteko, sagar ondo bakoitzetik 100 kilo sagar ateratzen da.

gardo horniketa estaltzeko, hau da kontsumitzen dena ekoizteko.

Sagar ondoen landaketa suzta-tzeko kanpainiak 40.000 zuhaitz berrien zabalkuntza erraztu du azken lau urteotan. Aldundiak sagar moeta ezberdinak landatzeko arauak argitaratu ditu, batez ere, sagardoa egiteko egokiak direnen-

tzat. Sagar hauek goxo-garratzak, azidoak edo mingotsak izan ditezke. Baserritarrek Hondarribiko Zubieta ikerkuntza-landasailean eros dezakete landare hauek. Landaketa egina dela frogatzen dutenean erosketaren dirutza itzuliko zaie baserritarrei.

Eskakizun epea azaroaren

30ean bukatzen da eta horretarako zazpi eskualdetako bulegoak eta nekazal ganbarak prest egongo dira eskamen hauek harrera izan dezaten.

Iaz 121 milioi pezeta eman ziren 2011 baserrietan, hau da, 65.000 pezeta batuz besteko baserri bakoitzean.